

2023EKO EKITALDIARI DAGOKION AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

(* Aurreko ikasturteko deialdian aurkeztu bazen, ez da berriro aurkeztu behar.

- (*) **DIBORTZIO, BANANTZEA, ERREGISTRATUTAKO IZATEZKO BIKOTEKIA DESEGITEA EDO ANTZEKO EGOEREN KASUAN:** Dibortzioaren edo banaketaren epaia, hitzarmen arautzaileak, udalak eginiko bizikidetzaz-ziurtagiria, pentsioen egiaztagiri eguneratuak eta, hala badagokio, aitaren edo amaren ezkontidearen edo bikotekidearen diru-sarrerak, baldin eta aurretik aurkeztu ez bada.
- (*) **DESGAITASUNA DUTEN ANAI-ARREBAK ETA SEME-ALABAK:** Desgaitasun-maila aitortzen duen egiaztagiria.
- (*) **HARRERA-FAMILIETAN DAUDEN ADINGABEAK:** Harrerari buruzko foru-aginduaren fotokopia eta dagokion aldundiak erabakitako harrerako baldintzen fotokopia, baldin eta aurretik aurkeztu ez bada.

- NEBA-ARREBA UNIBERTSITARIOA:** Matrikulatuta dagoela egiaztatu eta errentamendu-kontratua aurkeztu, hala dagokionean.
- GURASO BAKARREKO FAMILIA BATEKO KIDE BADA:** guraso bakarreko familiazat hartzen da guraso, tutore edo harreragile bakarra duena, eta familia-liburuaren edo tutoretza edo harrera ezartzen duen dokumentu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Eskatzailea **ERABATEKO UMEZURTZA** eta 25 urtetik beherakoa denean: Egoera egiaztatzea
- BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDE GUZTIEK 2023EAN IZANDAKO ONDAREA ETA DIRU-SARRERA ETA LAGUNTZA GUZTIAK** EGIAZTATU BEHAR DIRA, baldin eta datu horiek PFEZaren aitorpenean jasota ez badaude.
- ZERGA EGOITZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK KANPO IZANEZ GERO, 2023.** urteari buruzko agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:
 - Zerga-aitorpena egin duten kide konputagarrien Pertsonen Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpen-likidazioaren fotokopia osoa.
 - Errenten eta beste diru-sarrera batzuen ziurtagiriak, hala nola Gizarte Segurantzaren pentsioen eta Lanbidek kudeatutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo/eta etxebizitzarako diru-laguntza osagarriaren ziurtagiriak.
 - Lan-etekinen ziurtagiria (10T), PFEZaren aitortpena egin ez bada.
 - Familia ugaria: txartela.
 - Bizikidetzaren unitateko kideen jabetza guztien OHZ Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kopia.
- IKASKETAK DIRELA-ETA FAMILIAREN EGOITZATIK KANPO BIZIZ GERO:** Errentamendu-kontratua edo bizileku-gastuaren egiaztagiria.
- 2023-2024an EAetik kanpoko irakaskuntza hauek egin badira, 2023-2024 ikasturtean lortutako batez besteko notaren ziurtagiria.** 2023-2024 ikasturtean ez badu ikasketarik egin, egiaztagiria egindako azken ikasturtearena izango da.
 - Batxilergoa.
 - Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa.
 - Ikasketa artistiko profesionalak.
 - Kirol-ikasketak.
 - Hezkuntza-administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-irakaskuntzak.
- INDEPENDENTZIA-EGOERAK:** Umezurtz ziurtagiria eta eskuragarri dituen bizitzeko baliabideen egiaztagiria.
- HEZKUNTZA-LAGUNTZA BEREZIA BEHAR DUTEN IKASLEAK, 22.ARTIKULUAN ZERRENDATUTAKO LAGUNTZAK ETA SOROSPENAK ESKATUZ GERO:**
 - Pedagogia-berreziketako, hizkuntza-berreziketako eta adimen-gaitasun handiari lotutako zerbitzua ematen duen ikastetxearen edo berrezitzailearen memoria, zerbitzu horren ezaugarri buruzko informazio zehatza jaso duena, honako hauek barnean direla: asteko eta ikasturteko ordu-kopurua, zerbitzua ematen duen espezialista eta kurtsoaren hileko eta guztizko kostua
 - Laguntzaren edo subsidioaren xede diren eskola-garraioak eta bestelako zerbitzuek 2024/2025 ikasturtean sortutako gastuaren egiaztagiriak, betiere Administrazioak zerbitzu horiek doan ematen ez baditu.
- BESTELAKOAK:** Bizikidetzaren diru-sarrerak justifikatzeko egoki irizitako beste edozein dokumentu, hala nola, kaleratze-likidazioak, enplegu-erregulazioko espedienteak, behar bezala erregistratutako dohaintzak eta laguntzak, etab.

OFIZIOZ EGIAZTATZEA: Araudi aplikagarriekin bat etorritik, prozedura honen instrukzio-organismoak ofizioz egiaztatuko ditu honako datu hauek administrazio eskudunetan: Errenta-mailaren kontsulta-zerbitzua (euskal foru-ogasunak), Ondasun higiezinaren kontsulta-zerbitzua (euskal foru-ogasunak), Estatuko Katastro Zerbitzua, Estatuko Zerga Agentziaren Zerbitzua, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren Nortasun Datuak Egiaztatze Zerbitzua, Ogasun eta Administrazio Publikoaren Ministerioaren legezko bizilekuari buruzko datuen kontsulta-zerbitzua, Hezkuntza Ministerioaren unibertsitate-tituluak eta unibertsitateaz kanpokoak kontsultatzeko zerbitzua, Familia ugariaren tituluen kontsulta-zerbitzua, desgaitasun-graduaren edo -mailaren kontsulta-zerbitzua (IMERSO), Izatezko Bikoteen Erregistrotako inskripzioak kontsultatzeko zerbitzua, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren kontsulta-zerbitzua, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren kontsulta-zerbitzua, Errolda historikoaren datuak kontsultatzeko zerbitzua. Bizikidetzaren unitatearen erroldaren kontsulta-zerbitzua data jakin batean (Basauri, Bermeo, Leioa, Ortuella, Mungia eta Usansolo udalerrietan izan ezik).

Non eta Interesadunahorren aurka agertzen ez den modu arrazoituan : <https://www.euskadi.eus/rgpd/1010605>